# AGINTARIAK ETA LANGILERIA

## Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

### OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

## 4109

*1405/2025 EBAZPENA, irailaren 11koa, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiarena, zeinaren bidez Irama Villar Gómez andrea izendatzen baita Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Ezkerralde-Enkarterri-Gurutzetako Erakunde Sanitario Integratuko zuzendari mediko.*

Ikusi da Ezkerralde-Enkarterri-Gurutzetako Erakunde Sanitario Integratuko zuzendari mediko lanpostua betetzeko deialdia, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren ekainaren 11ko 981/2025 Ebazpenaren bidez argitaratu zena (2025eko uztailaren 1eko EHAA, 123. zk.).

Eskabideak aurkezteko epea amaitu da eta lanpostu hura betetzeko izangaiak aurkeztu dituzten agiriak aztertu dira, baita euren baldintza profesionalak aurkeztutako merezimenduen arabera baloratu ere.

Hala, aurkeztutako agiriak aztertu ondoren, ikusi da Irama Villar Gómez andreak deialdiko lanposturako aproposa dela eta bertan jarduteko behar bezalako trebakuntza duela.

Hori guztia dela-eta, Zuzendaritza Nagusi honek

EBAZTEN DU:

Lehenengoa.– Irama Villar Gómez andrea izendatzea zuzendari mediko Osakidetza-Euskal osasun zerbituzko Ezkerralde-Enkarterri-Gurutzetako Erakunde Sanitario Integratuko.

Bigarrena.– Izendapen honek 2025eko irailaren 12tik aurrera izango ditu ondorio ekonomiko eta administratiboak.

Hirugarrena.– Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Administrazio Kontseiluari. Horretarako hilabeteko epea izango da, Ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2025eko irailaren 11.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusia,
MIREN LOREA BILBAO ARTECHE.